

Monasterioen ondareak

No todas las Instituciones eclesiásticas –seculares y regulares– han conocido una historia económica a la par; porque han sido desiguales el mecenazgo institucional y social que las ha cobijado, así como el resultado de su trabajo manual o intelectual. Los siglos XI-XII fueron especialmente favorables a la acumulación de bienes en manos de los monasterios de tradición benedictina. En este sentido son un caso indicativo, también en Euskal Herria.

Elizaren ondarea, lehenagokoa eta oraingoa, ez da metatu egun batetik bestera; alderantziz, gehienetan urteak eta belaunaldiak behar izan dira azkenean lortutako ondasun-metaketara iristeko. Eliz ondare orokorraren barruan, monasterioena oso argigarria gertatzen da ekonomia eliztarra ezagutzeko ez ezik monasterioen alkantzu sozial orokorra neurtzeko ere.

Monasterioen ondarea

Euskal Herriko monasterioak beren sorrerako loraldi handia XI-XII. mendeetan izan zuten, eta tradizio beneditarraren barrukoa da. Benediktartasunaren bi Erreforma nagusi izango dira orduko monasterio-sarea sortzean: klunitarrena lehenen (909...) eta zisterarrena kasik bi mende geroago (1098...).

Beneditarren bizierak nolakoa izan behar zuten aditzera emateko esaldi labur bat erabili ohi zen: monjeak "otoitzean eta lanean" (*ora et labora*) bizi behar zuela esaten zen. Bere laburrean, itxuraz esaldi argia da hori, baina historian ez da beti esanahi berarekin ulertu, hain zuzen otoitza eta lana klunitar eta zisterarrek berdin banatu ez zituztelako.

Ulerkera ezberdin horiek ondorio ezberdinak izan zituzten beneditarren Erreformatan, eta Etxe bakoitzak izan zezakeen barruko antolamenduan ere. Lehendabizi, monasterioko

bizilagun-motak taldekatzean (monjeak, konbertsoak, zerbitzari mirabeak, etab.); berehala, kargu, lan eta ondasunen banaketan (abadea, priorea, diruzaina; monasterio-gunea bera, etxaldeak edo eskumeneko monasterio txikiak); azkenik, monjeen bizimoduko eguneroko ordutegian.

Cluny-ko beneditarretan, monje-monjeak ia osorik otoitzera emanak bizi ziren: taldearen errezo ofizialerako ordutegi bete eta estua zuten, baina bestelako lanetarako ordu gutxi. San Benitoren Erregelak ezarritako zortzi "otoitz-orduen" ondoan beste lau ofizio liturgiko zituzten, eta bizpahiru Meza egunero. Gainera, bere gisara errezatu behar zituen otoitzak ere bazituen monjeak.

Honek guztiak monasterio klunitarretan esku-lanarena oso bigarren mailan utzi zuen, eta egitekoa konbertso eta zerbitzari herritarren ardurapean laga zuten. Dena den, horrela lortu zuen Cluny-k bere ondare erraldoia eraikitzea. Cluny-ren inguruko bospasei legoatako lur-sailak bere eskuetan izan zituen, eta askoz urrunago hainbat Erreinutan ondasunak, eta errenta aberatsak Penintsula Iberiarrean batez ere.

Bestelako jarrera ekonomiko-espirituala erakutsi zuen XII. mendeko zisterarren Erreformatan, monje guztien eskulanari ordutegi zabalagoa eskaini zion honek, lanean ere otoitz egin behar



zela argudiatuz; esku-langile zistertarra, hala zioten, etenik gabeko otoizlaria izan zitekeen lan-jardunean ari zenean ere.

Horrek emaitza handiak ekarri zituen monasterio haien ekonomian. Monasterio bakoitzaren batez besteko lursailak 5.000/8.000 hektareakoak izatera iritsi ziren, eta Europako lur-gintzak aurrera egin zuen monasterioen inguruetan, eta kolonizazio berrien bidez Europa kristauaren mugaldeen.

Euskal Herriko monasterioak

Monasteriotako eredu ekonomiko haiek –klu-nitarrak eta zistertarra, esan nahi dut– gurean laster txertatu ziren, lehendik genituen tradizioak eta erreforma berriak Frantziako moldeetara jarri zirenean, hain zuzen horretarakoxe handik gurera ekarritako Abadeen gidaritzapean.

Monasterio handiek beren “jaurerri monasteriotarra” eratzten ahalegindu ziren, hau da, lurralde zabal bateko ondasun eta eskubideak eskuratuta, Errege, Jaun eta herriek emandakoekin, egin ahal izan zituzten erosketekin eta monjeen lanaren poderioz.

Euskal Herrian, Nafarroa izan zen monasterioetako ekonomia aurrera eramaten lehenengoa, indar handiz, gainera. Adibidez, 1137an Iratxeke monasterioak Munarrizketako herria jaso zuen Erregeri egindako diru-mailegu baten truke: herria, esaten zen, bere bizilagun, jauregi, baratza, errota eta erret lur-sailekin eman zitzaion monasterioari.

Antzeko opari, truke eta erosketak ugariak izan ziren Nafarroako monasterioen mesedetan: Leirek historia aberatsa izan zuen horretan, Irantzuk eta abarrek ere bai. Mendialdean, kontuan hartzekoak ditugu, gainera, Orreagako Ko-

lejiata eta Aralarko San Migel, beneditarrak izan gabe ondare handia batu zutenak.

Nafarroa osora ez ezik gainerako Euskal Herrira ere zabaldurik zen monasterioen ondasun-geografia. Nafar monasterio handiek Hiru Probitzietan zutena gorde ahal izan zuten: Orreagak Usurbil eta Zumaian zituen ondasunak, edo Leirek Arabako Dordoniz eta Beranturin, etab.

Bestalde, Nafarroako Erresumak, jakina denez, bere lehen mendeetan esku zuzena izan zuen Aragoi, Errioxa eta Gaztelako eraketa politikoan. Horren ondorioz, lurralde hauetako Elizaren historian ere, eta monasterioetan. Eta, gero, Nafarroako Erresuma bere muga ezagunetara bildu zenean, kanpoko monasterio haiek Euskal Herrira zabaldutako beren jaurerriei eutsi egin zieten.

Adibide gisa, gogoratu besterik ez dago Aragoiko San Juan de la Peña Gaztelugatxeraino iristen zela, Errioxako Denemiliagak ondasunik franko zuela Araban (Kuartango, Añana, Gazeta, Akosta) eta Bizkaian (Bermeo, Axpe, Ugarte), edo Oñako monasterioak (Burgos) Bizkaian hainbat herritan izan zuela ondasunik (Santurtzi, Arrigorriaga edo Karrantzan).

Erdi Arotik zetorren ondasun-pilatze hark azken buruan ondare itzela taxutu zuen monasterioen eta orokorrean Ordena erlijiosoen jabetzan. XVIII. mendetik hasita, egoera haren aurkako kritika indartuz joan zen, eta Iraultza Frantsesarekin eta ondoko Liberalismoarekin guztiz itzulipurdikatu zen dena, desamortizazioan: jabetasunak lehenik Estatuaren eskuetara joan ziren, eta gero gehienbat merkatu libreria, enkantean.

Joseba Intxausti